

ARABA TXISTU BANDA
HARREMANETARAKO:
677 61 63 60
jlcantabrana@gmail.com



ARABA TXISTU BANDA

Txistu laukote klasiko hau 2017an sortu zen, oraindik urtea betetzeke. Bereizgarri ditu belaunaldi ezberdintasuna eta kide guztiak arabarrak izatea. Erreper- torioan herrialdeko musikagile eta musikari leku zabala ematea dute xede. Ganbara musika lantzen du taldeak, txisturako espreski sortutako obrak joz. Mur- gian, Legution eta Donostian egin dituzte emanal- diak.

Jose Luis Cantabrana Ochoa (1965, Gasteiz)	Iker Larrauri Delika (1998, Gasteiz)	Christian Alemany Arteta (1978, Audio)	Daniel Compañón Alonso (1988, Barakaldo)
Txistu lehena eta zuzendaria. Murgiarra. Felix Ascasso maisuarekin hasi zituen txistu ikasketak Gastei- zen. Goi-mailako tituloa berriz, Jose Ignazio Ansorena maisu zuelarik erdietsi zuen Donostiako kontserbatorio- an. Musikagilea eta txistu irakaslea	Bigarren txistua. Karlos Larreategi izan zuen txis- tu maisu. Goi- mailako ikasketak egiten dihardu Iruñean Xabier Olazabal maisua- rekin. Besteak beste Hernaniko txistulari gazteen txapelketa eta Euskadiko Musika- ri gazteen saria irabaziak ditu. Tronpetajolea.	Silbotea. Amurrion bizi da. Bertako Kontserbato- rioan erdietsi zuen erdimai- lako tituloa Idoia Karea- garekin. Goi- mailakoa ostera Aitor Amilibia- rekin Bilboko kontserbato- rioan. Txis- tu irakaslea. Informazio zientzietan lizentziatua.	Perkusioa. Gasteiztarra. Euskal perkusio folklorikoan ikasketak ditu. Baita baterian, perkusio etniko zein latinoan. Besteak beste irakasle izanik Gorka Errezil, Iñigo Egia, Patxi Lebrancón, Karlos Subijana ... Ar- tearen historian lizentziatua da.

EGITARAUA

ARO BERRIAK... *JL Cantabrana*

Murgiako Txistu Egunerako espreski sortutako biribilketa. Zintadantza doinuaren oihartzunekin.

MENDIKO HAIZEAK... *J Olaizola*

Hernaniko musikaria 1969an zendu zen. Txistulari Elkar- teko sortzaileetako bat. Zortzikoarekin jolasten du obra honetan. Guridi, Usandizagaren... garaikidea.

ERANTZUNIK GABEKO GALDERAK

... *K Sanchez Ekiza*

Musikologo, txistulari eta musikagile iruñarraren obra ezaguna. Doinuak galderak uzten ditu airean.

ARTZAIN PASTORALA... *JM Gonzalez Bastida*

1. Adagio-Allegretto pastoril
2. Otoitza
3. Dantza zaharra

Musikari Bergararra Gasteizko Udal Bandako zuzendaria izan zen. Txistulari elkarteko urrezko domina jaso zuen.

TXORIAK NERE BASERRIKO SAGASTIAN

... *L Aranburu*

Musikagile gasteiztar garrantzitsuenetakoa. Obra honek bi zati bereizgarri ditu: lehenengoa, deskriptiboa eta biga- rrena, klasikoagoa, *aldaketa* edo *bariazioz* osatua.

VIVA ARAIA

... *Mold. JL Cantabrana*

Virgilio eta Gerardori 1917an jasotako pasodoblea.